



IKT-n heldutasun-maila
ERTAINA duen ikastetxea

Centro acreditado en el nivel
MEDIO de madurez TIC

ESKAINNTZA 2018-19

SAN MARTIN AGIRRE

HERRI ESKOLA



San Martin Agirre
herri eskola



San Martin Agirre herri eskola Bergarako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa da. D ereduko ikasketak eskaintzen ditu. Bi eraikin ditu Bergaran: Boni Laskurain pasealekuaren 25. zenbakian daude Lehen Hezkuntzako gelak, idazkaritza zein zuzendaritza; 15. zenbakian, aldiz, Haur Hezkuntzako gelak, gimnasioa eta jangela daude. Osintxu auzoan Haur Hezkuntzako gela bat dugu.


IKASLEEN ORDUTEGIA:

- Lanaldi etena: 09:00 - 12:30 eta 15:00 - 16:30
- Lanaldi jarraitua: 09:00 - 13:00
 - Bi urteko ikasleriak ordutegia malgutzeko zein murrizteko aukera du.

ESKOLAKO OSPAKIZUNAK:

- Gaztaina errearen jaia
- Euskara eguna
- Gabonetako jaialdia
- Olentzero
- S.Martin Danborrada HHn
- Ate Irekiak
- Eskola-eguna
- Sta. Ageda
- Aratusteak
- Erakusketak
- Irteerak
- Antzerkiak

.....



GURE ESKAINTZA

INGELESA:

Murgiltze goiztiarra, 4 urtetik hasita.



INFORMATIKA:


Haur Hezkuntzan 3 urtetik gorako gela guztietan eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan ordenagailu bat daukagu, gutxienez, gela bakoitzean, baita liburutegian ere. Sare barruan daude ordenagailu guztiak eta Interneten sartzeko aukera eskaintzen dute.

Horrez gain, Eskola 2.0 programaren barruan, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako gela bakoitzak honako baliabideak ditu: arbel digital interaktikoa, bideo-proiektagailua, bozgorailuak, armairu elektrifikatu metalikoa eta miniordenagailu eramangarriak.



MUSIKA:

Lau urtetik aurrera, musikaz gozatzea sustatzearekin bat, kultur musikalera hurbiltzeko baliabideak eskaintzen dizkiegu ikasleei.



PSIKOMOTRIZITATEA:

Garrantzia handia ematen diogu haurra bere osotasunean hezteari; horregatik, ikaslearen alderdi intelektuak, afektibo eta fisikoa modu orekatuan garatzeko bideak jorratzen ditugu. Haur Hezkuntzako talde guztiei eskaintzen diegu astero, gutxienez, ordu eta erdiko saio bat psikomotrizitate gelan.

ESKOLAZ KANPOKOAK:


Eskola orduetatik kanpo ekintza ugari egiteko aukera eskaintzen diegu gure ikasleei:

- Haur Hezkuntzan:

Psikomotrizitatea (H.H. osoa) / Ingelesa (H.H. 4 eta 5 urte) / Robotika (H.H. 4 eta 5 urte) / Marrazketa (H.H. 4 eta 5 urte)

- Lehen Hezkuntzan:

Ingelesa / Eskola Kirola / Aloha / Pintura eta marrazketa / Robotika / Xakea / Idazkera digitala



DIRU ORDAINKETAK:

Urtean behin kuota bat kobratzen dugu, ikasleek erabiltzen duten materiala ordaintzeko balio duena;

2017-2018 ikasturtean Haur Hezkuntzako 67€koa da. Lehen Hezkuntzako, berriz, 77€koa.

Bestalde, eskolaz kanpoko ekintzek zein irteera eta txangoek tarifa propioak dituzte.

Azkenik, Agorrosin Guraso Elkarteak urtero 35€ inguruko kuota kobratzen du, bakarra eta familiaka.

GARRAIOA:

Goizekoa eta arratsaldekoa



Eusko Jaurlaritzak jarritako autobusak dira, beraz, ez da ezer ordaindu behar. Hiru lineaz osatuta dago: Olatik, Osintxutik eta Elgetatik datozenak.

Olatik datorren autobusak bi buelta ematen ditu; lehenengo bueltan etortzen diren ikasleak zaintzaile batekin gelditzen dira klaseak hasi bitartean. Arratsaldean gauza bera egiten dugu bigarren bueltan joaten direnekin.

Autobus bakoitza zaintzaile baten ardurapean dago.



ER 0103 10 B	BER. 2	6/9	2018-06-25
--------------	--------	-----	------------



JANGELA:

Ikasturte guztian zehar jangela zerbitzua eskaintzen die gure ikastetxeak ikasleei. Sukaldea eta jantokia Martinez de Iralan dagoen eraikuntzan daude eta ikasleak zaintzaileekin joaten dira bertara.

Kalitatezko zerbitzua eskaintzen aldera, bazkaria bertako sukaldean gertatzen dute sukaldariak egunero.

Hezkuntza Departamentua arduratzen da jangelaren kudeaketaz; hori horrela, sail horrek finkatzen ditu prezio publikoak aplikatzen ditugu:



Bi urteko umeak: 4,60 €/eguna

Finkoak garraiatuak (2 km): 3,30 €/eguna

Finkoak ez garraiatuak: 4,60 €/eguna

Egun solteak: 5,20 € egun bakoitzeko



Menuak hiruhilero etxeetara

bidaltzen dira.

Menu desberdinak eskaintzen ditugu eskolako jangelan. Intolerantziak, alergiak edota gaixotasunak direnean ikaslearen guraso edo tutoreek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: espezialisten txosten ofiziala eta ezbehar baten aurrean jarduteko protokoloa.

HARRERA-ZAINTZA:

Bi urteko ikasleen eraikinean Harrera Zerbitzua eskaintzen dugu.



ORDUTEGIA:

Eskolako egunetan bi txanda daude:

1. txanda: goizeko 7:30etik 9:00etara (gosaria barne).
2. txanda: arratsaldeko 16:30etik 18:00etara (merienda barne).

Ikasleek aukera izango dute zerbitzua erabiltzeko txanda batean, bitan edo egun solteetan.

EGUTEGIA:

Eskolako egunez gain oporretan ere eskaintzen da zerbitzua. Oporretako zerbitzuaren ordutegia 09:00etatik 13:00etara da. Kuotak ere aldatzen dira.

KOBROAK:

Txanda bat 80€ ordainduko da, bi txanda badira 120€, eta egun solteak 8€ . Aukera ere badago txanda erdi hartzeko (8:30-9:00/16:30-17:00) eta kasu horretan 40€ kobratzen da.



SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA

Fax: 943769981 - 20570 BERGARA

Idazkaritza, Zuzendaritza eta Lehen Hezkuntza:

Boni Laskurain 25.

Telefonoak : 943 76 21 47 - 943769996 -
688666943

Haur Hezkuntza:

Boni Laskurain 15

Telefonoa : 688 682 751

Osintxuko gela:688666942

Posta elektronikoak:

HYPERLINK "mailto:012265aa@hezkuntza.net"

012265aa@hezkuntza.net

HYPERLINK

"mailto:sanmartinagirre012265@gmail.com"

sanmartinagirre012265@gmail.com

Web gunea: HYPERLINK

"http://www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola"

www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola

HYPERLINK

"http://www.sanmartinagirrelhi-bergara.hezkuntza.net"

www.sanmartinagirrelhi-bergara.hezkuntza.net

FACEBOOK: SAN MARTIN AGIRRE KOMUNITATEA